

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 25 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai dira eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 850 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	50 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

LEHIA, GARAPENAREN GAINETIK

Hainbat dira norberaren herrialdetik atera eta nazioartekotzea erabakitzen duten enpresak. Halakoetan, indarrean dira enpresak nazioartekotzeko kanpo-politikak, haien jardunak beste herrialdeetan izan ditzakeen ondorioak gogoan hartzeko. Hain zuzen, enpresa horiek giza garapen iraunkorraren eta giza eskubideen irizpideen jakitun egon behar dute, urraketarik gerta ez dadin. Halere, aurkakoa diote ikerketek: enpresen arteko lehiakortasuna gailentzen da, eta bazter uzten dituzte beste herrialdeetan jarduteko politikak. Euskal enpresak ere horren parte dira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) Koordinakundeak ohartarazi duenez.

Koordinakundeak ikerketa bat bultzatu du, enpresek nazioartekotzean zer politika erabiltzen duten aztertzeko, hau da, ea gobernuak zehaztutako irizpideetan oinarritzen diren ala ez ikertzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako eta hiru lurraldeetako foru aldundietako kanpo-politikak hartu dituzte aztergai. 2017an ere antzeko lan bat argitaratu zuten, baina orduan Jaurlaritzaren politikak baino ez zituzten aztertu. Ikerketa hau hurrengo urratsa da. Gorka Martija ikerketaren egileetako bat da, eta helburuak izan ditu aipagai. Batetik, jakin nahi izan dute ea Jaurlaritzak aintzat hartu dituen lehen ikerketan eginiko gomendioak, ea kanpo-politikak aldatu dituen ala ez. Bestetik, ikerketa-eremua zabaldu nahi izan dute eta aldundietan ere arreta jarri.

Horretarako, 2017-2019 urteak hartu dituzte lagintzat eta, aurreko ikerketarekin alderatuta, ondorio nagusi batzuk atera dituzte: «Jaurlaritzak barneratu ditu puntu batzuk, baina elementu periferikoak dira, eta ez dira nahikoak». Bada ondorio gehiago ere. Martijak jakinarazi du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kanpoko ekintzaren marka ez dela giza garapen iraunkorra. Izan ere, uste zuten kanpoko ekintzako eragileek esku-hartze garrantzitsua izan zezaketela irizpideak ezartzean, baina ondorioztatu dute ez dutela indarririk: «Ez dute borondaterik ikuspuntu

kritiko bat eskaintzeko, ez dute aukerarik giza garapen iraunkorra eta giza eskubideak bermatzeko». Martijak, beraz, nabarmendu du kanpo-politiketan enpresa-lehiakortasuna gailentzen dela, eta Kanpoko Ekintzarako Sailak zeregin bakarra duela: Ekonomia Garapeneko departamentuek zuzentzen dituzten politikak bultzatzea.

Ondorioen ostean, berriz, proposamen sorta bat egin dute. «Gaur egun enpresak nazioartekotzeko politika hegemonikoa kolokan dago eta, ondorioz, haien benetako izaera; beraz, ildo estrategikotik aldaketarako esfortzua egin behar da: enpresa-lehiakortasuna eta merkatuan aurrera egitea ezin dira ia-ia irizpide bakarrak izan». Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentro bat sortzea da proposamenetako bat. «Borondaterik ezari lotutako hutsune bat dago giza garapen jasangarrien eta giza eskubideen eremuan; zentroaren egitekoa hutsune hori betetzea litzateke». Funtzioen artean izango luke, besteak beste, politika publikoen definizioan parte hartzea eta gaur egun ez dauden irizpideak txertatzea, beste herrialdeetan salaketak jasotzea, eta, neurri batean, zigorrak ezartzea.

Horrez gain, azterlanean proposatu dute Basque Consortium plataforman parte hartzen duten eragileen «espektroa» ere zabaltzea. Jaurlaritzak, hiru diputazioak eta merkataritza ganberak daude erakunde horretan, eta Martijak uste du publikoaren eta pribatuaren arteko «aliantza bat» sustatzen duela. Beraz, funtsezkotzat jo dute plataforma horretara ekonomia sozial eta solidarioko eragileak batzea, baita sindikatuak eta GKEak ere, garapen iraunkorraren eta giza eskubideen alde jardun ahal izateko. Hala, egileek uste dute posible izango dela gobernantza publikoen «ikuspuntu orokorra» aldatzea, «lehiakortasun hutsa» ez dadin izan irizpide bakarra.

RAMIREZ DE OKARIZ, A. Berria, 2021eko otsaila.
Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dio testuak nazioartekotzen diren enpresen jardueraz?

- a) Giza garapen iraunkorra eta eskubideak dituztela oinarri.
- b) Ez direla indarrean dauden politikak inolaz ere urratzen.
- c) Enpresen arteko lehiakortasuna nagusitu ohi dela.

2. Zer aztertu du ikerketa berriak?

- a) Aurreko ikerketan emandako gomendioak bete diren.
- b) Jaurlaritzak eta aldundiek kanpo-politikak aldatu dituzten.
- c) 2017an ez bezala, Jaurlaritzaren helburuak egokiak diren.

3. Zer ondorio atera dute GKEkoek ikerketatik?

- a) Politikak aldatzeko borondaterik eza dagoela.
- b) Jaurlaritzak elementu nagusiak aintzat hartu dituela.
- c) Kanpoko ekintzek giza garapen iraunkorra dutela ardatz.

4. Zer funtzio izan beharko luke Euskal Zentroak?

- a) Euskal enpresen interesak atzerrian babestea.
- b) Politika publikoen egokitasuna aztertzea.
- c) Enpresei giza garapena eta eskubideak betearaztea.

5. Zer da funtsezkoa Basque Consortium plataforman, Martijaren ustez?

- a) Erakunde publiko guztien arteko aliantza gehiago sustatzea.
- b) Ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzen dutenek parte hartzea.
- c) Jaurlaritzak eta diputazioek giza eskubideen alde jardutea.

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

HIRIAREN OINARRI BERRIAK

«Gaurkoa egun historikoa da, XXI. mendeko osoko bilkurarik garrantzitsuenetako bat», esan du Bilboko alkateak, Bilboko HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) berria onartu baitu Udalak. Orain, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko ingurumen-estrategiaren **6** jaso beharko du, eta baita EAEko Lurralde Antolaketarako Batzordearen aldeko txostena ere. Ez da espero **7**. Beraz, ekainean behin betiko onartuko da datozen hogeitun urteetan Bilbo nolakoa izango den zehaztuko duen **8**.

Alkatearen esanetan, honelakoa izango da planak bultzatuko duen Bilbo: «Berdea, iraunkorra, lagunkoia, kohesionatua eta jarduera ekonomikorako erakargarria; baita auzoekiko **9** izango duena ere». Halaber, hirigintzako zinegotziaren hitzetan, planak klima-aldaketaren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokarekin **10** ditu helburuak.

Bilbo herritarrak galtzen ari da azken urteetan eta, Udalak berak egindako kalkuluen arabera, joera horri **11** gero, 2030erako hogeitun mila herritar galduko ditu. Planaren helburuetako bat populazioa mantentzea da eta Bilbon **12** 345.000 eta 350.000 artean izatea lortu nahi da. Horretarako, gazteak erakarri nahi direla esan du hirigintzako zinegotziak. **13** bihurtu nahi dute Bilbo unibertsitateen hiri eta inbertsiogileentzat hiri interesgarri, «ekonomia **14** lortuko delako soilik enplegua sortzea, Bilbo bizitzeko eta lan egiteko hiria izan dadin».

Lurzoru naturala zaintzea da beste helburuetako bat, eta aurrerantzean hirigintzan egin litezkeen **15** bermatu egin beharko lukete lurzoru hori ahalik eta gutxien urbanizatzea. Zinegotziaren esanetan, «Bilbok ez du zabalgunek berririk izango». Urbanizaezin **16** dira udalerrriaren hektarea ugari. Berdeguneetarako eta eraiki gabeko gunek libreetarako hektarea asko gorde ditu planak. Hala, etxebizitzak eraikita dauden eremuetan, gutxienez, lurzoruaren ehuneko hogeita bostek gunek librea edo berdegunea izan beharko du. Eratzun berdea hiriko «ekosistema berde» **17** da eta, hiriguneko berdeguneak batuz gero, bilbotar bakoitzak berrogei metro koadroko berdegunea izango luke.

Itsasadarra hiriaren bizkarrezurra da, eta legez duen **18** integratzailea sendotu nahi du planak. Horretarako, itsasadarraren ertz bietan gunek libreak egotea ziurtatuko du. Auzo-bihotzak direlakoak indartu nahi ditu, **19** zerbitzuak ezartzen lagunduz —ekipamenduak, merkataritza...—. Hortaz, mugatu egingo da beheko solairuetan trastelekuak, garajeak edo etxebizitzak jartzea eta zerbitzuak edo negozioak **20** dira. Inguru inklusiboak eta seguruak eratuko dira, **21**, denboraren kudeaketa errazteko eta espazio publikoan segurtasuna bermatzeko.

Planaren azalpenarekin bukatzeko, zinegotziak azaldu du HAPOak **22** duela zeintzuk diren mugikortasunerako gorde behar diren lurzoruak. Horren harira, planak hainbat proiektu jasotzen ditu, esaterako, Abiadura Handiko Trena, intermodalitatea edo hegoaldeko trenbide-saihesbidearen proiektua. Errepideei dagokionez, hegoaldeko zein ekialdeko saihesbideak bukatzea jasotzen du. Hiria zatitzen duten **23** kentzea ere aurreikusi da, adibidez, Errekaldeko saihesbidea. Trenari dagokionez, FEVEren **24** trenbide batzuk lurperatzea du helburu. Tranbia, **25**, Etxebarriantza eta Barakaldorantz hedatuko da.

MARURI, I. *Bizkaia hitza*, 2021eko urtarrila. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) ezagutza
 b) jabetza
 c) aitortza
 d) ekintza

7. a) aurreiritzirik
 b) ezustekorik
 c) hitzarmenik
 d) emaitzarik

8. a) araudia
 b) helegitea
 c) aurkibidea
 d) eranskina

9. a) hornidura
 b) betebeharra
 c) aisialdia
 d) mirabea

10. a) ustiatu
 b) alderatu
 c) uztartu
 d) hausnartu

11. a) aurre eginez
 b) egokituz
 c) men eginez
 d) eutsiz

12. a) erroldatutakoak
 b) finkatutakoak
 c) islatutakoak
 d) egotzitakoak

13. a) Alabaina
 b) Bestela
 c) Horrexegatik
 d) Esaterako

14. a) trukatuta
 b) zokoratuta
 c) zapuztuta
 d) suspertuta

15. a) adierazpenek
 b) proposamenek
 c) iragarkiek
 d) aipamenek

16. a) apaindu
 b) doitu
 c) herdoildu
 d) izendatu

17. a) antolatu
 b) metatu
 c) arakatu
 d) murriztu

18. a) aldaera
 b) harrera
 c) sorrera
 d) izaera

19. a) gertuko
 b) ustezko
 c) legezko
 d) jatorrizko

20. a) erdietsiko
 b) saihestuko
 c) atonduko
 d) lehenetsiko

21. a) bide batez
 b) batez beste
 c) besteak beste
 d) behinik behin

22. a) zehazten
 b) miatzen
 c) ebasten
 d) laudatzen

23. a) hedadurak
 b) azpiegiturak
 c) hezurdurak
 d) estaldurak

24. a) doako
 b) premiazko
 c) antzinako
 d) ordezko

25. a) bestela
 b) berriz
 c) behintzat
 d) hau da

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.

Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazu iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazu ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan, erosten dugun janariaren erdia botatzen dugu zakarrontzira. Hori dela eta, legea zorroztea, jakien iraupena luzatzeko neurriak hartzea edota kontsumitzaileen ohiturak aldatzea eskatzen dute hainbat erakundek, elkartek eta adituk.

Gaiaz kezkatuta, zeure iritzia herriko aldizkarian argitaratzea erabaki duzu.

Gaia: ZER EGIN JANARIA ZABORRETARA EZ BOTATZEKO?

Europar Batasunean urtean 90 milioi tona elikagai botatzen ditugu zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo.



Urtero saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu eta ikastetxeetako jantokietan jakien % 24-35 botatzen da.

Elikagaien gainproduktzioak eta ustiapen handiek kalte handiak eragiten dituzte ingurumenean.



Lehen Munduko soberakinen bidez, gose diren 1.000 milioi pertsona elikatu ahalko lirateke baina, adituen ustez, helburua soberakinik ez sortzea izan beharko litzateke.

- Zergatik alferrik galtzen da hainbeste elikagai?
- Zer ondorio du jakiak botatzeak? Zer erantzukizun dugu kontsumitzaileok?
- Zer egin beharko genuke soberakinekin? Nola ekidin soberakinak sortzea?
- Zer egin beharko luke Administrazioak arazoa konpontzeko?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1 ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Lehia garapenaren gainetik»

1.	C	2.	A	3.	A
4.	C	5.	B		

- **2. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «Hiriaren oinarri berriak»

6.	C	7.	B	8.	A
9.	B	10.	C	11.	D
12.	A	13.	C	14.	D
15.	B	16.	D	17.	A
18.	D	19.	A	20.	D
21.	C	22.	A	23.	B
24.	C	25.	B		